# leloetatik egiara

*Par Txillardegi*

Labur azaltzen saiako nauzue.

Donostiako udala, españolista gogorren eskuetara pasa da. Bai Elorza eta bai Ordoñez ("number one" eta "number two" San Sebastian berrian) edozer baino lehenago *erdaltzale eta anti-abertzale* nabarmenak dira. Eta bidea *PNVak zabaldu die.*

Gertakari honek kontzientziak iratzarri egin bide ditu. Lehenengo aldiz PNVren saldukeria osoa azaldu da gainera. PSOEk lehenengo aldiz lortu du hiriaren gidaritza fazista baten eskutik.

Baina gaitza hori baino sakonagoa da.

«Gobernu abertzalea» omen dugun honetan, euskara hutsez kondairan lehenengo aldiz argitaratzen den *Egunkaria*, desagertzeko arriskutan dago ; nahiz Martin Ugalde eta beronen lankide nagusiak ez batere hatxebero izan (horren bekatu larria al da hori, bada, "majorité abertzale" omen duen herrialde hits honetan ?). Eusko Jaurlaritza ofizialak ez du *Egunkaria* laguntzen.

AEK eta UEU ere ez (hori laguntza baldin bada, zer dira HABE eta "cours d'été de l'UPV" delakoek hartzen dutena ? Kopuruak aldera ditzagun herriaren aurrean). Nahiz AEK eta UEU mugaz bi alderdietan ari diren erakundeak izan.

Ikastolak (ez diot nik hau, Mirari Bereziartuak eta Antonio Kanposek berek baizik) *inoiz baino arrisku larriagotan* daude gaur ; Espainiako eta Frantziako legetasunen barruan ez baitira aisa kokatzen. Jaurlaritza "abertzalea" (?) omen dugun honetan, herriak berak sortutako erakunderik txalogarriena, hiltzear.

Donostiako alkate abertzalea, erdaldun hutsa ; eta Udalzaingorako hautatuak izan diren 30 kargudunak erdaldun hutsak, ia-ia %100an.

Ertzantzak, bestalde, euskaldun gazte batzu arrestatu, eta... Madrilera ! Buruzagi espainolak dituzten gainerako polizia autonomikoek bezalaxe jokatuz.

UPVko errektorea eta ia-ia errektore-orde guztiak, erdaldun hutsak. Lejoako klaustroak, erdara hutsez. Eta gauza bera Nafarroako bi unibertsitateetan (espainolean eta Opus-koenean). Eta hori guztia Franco hil eta 16 urteetara...

Baina *etsaia HB da*, etsaia "etxekoa da" (Ardanzak lotsagabekiro esan berri duenez). Etsaia ez da espainiar eta frantziar inperialismoa, etsaiak ez dira gure "harki"ak ; Euskal Herriaren alde bizi eskaintzen eta ematen dutenak baizik.

Herri desberdinez osatutako Estatuetan, *autodeterminazioan* hasten da demokrazia. Gurean (edo gureetan) eskubide hori ez da aintzakotzat hartzen ; baina "demokrazia" dago...

"Boto abertzalea" artean, *behera* doa. Bi PNV-ek osatzen duten multzoa, behera doa. Euskadiko Ezkerra behera doa. Herri Batasuna behera doa. Baina PP espainolista gora doa, Arabako "navarrista" berriak, azkarki gora. Abstentzioa biziko gora.

Instituzio ofizialak *kontra* ditugu. Kontra ditu bai euskarak, bai abertzaletasunak, bai gudariek. Hauxe da garbiki aitortu nahi ez dena. Hegoaldeko *sistema osoa* doala pikutara. Eta sistema horren ardatza, *PNV dela.* PNVak Donostiarra PSOE eta PP ekarri dituen bezala, PNVak ekarri ditu espainolismoa eta erdaltzalzalekeri mota guztiak, lotsarik gabe, "etxekotzat" agertzera.

Badirudi, hitz batez, abertzaletasunak kontra dituela *instituzio autonomikoak* ; eta hauek, nabarmenki, lehenagoko urteetan bezala, *Euskal Herriaren kontra* ari direla.

Oraindik okerragoa : *ikurriñaz* mozorroturik ari baitira gure kontra.

Garaia da, beraz, egia *aurrez aurre* ikusteko ; eta "la révision déchirante" egiteko. Arana-Goirik bere garaian egin zuen bezalaxe. Hark ere "zentzuaren kontra" altxatu zuen euskal ikurriña. Guk geuk ere *euskal zentzu arruntaren kontra* jokatu behar dugu ; honi datxezkion atsekabeak jasanez.

Ontzi autonomikoa hondora doa. Zer egin ?

## COMMUNIQUE D'I.K.

■ L'organisation révolutionnaire basque Iparretarrak revendique les actions réalisées à l'encontre du promoteur immobilier Léon Donier à Ciboure (18 juin) et d'une résidence secondaire à Hélette (24 juin). En revanche, I.K. dément formellement toute implication dans l'attentat perpétré contre le bateau de pêche "jamais deux sans trois" à Bayonne.

L'action contre la résidence secondaire de Hélette a été complètement passée sous silence grâce à la collaboration active de certains médias avec les forces de répression. Flics et journalistes mercenaires espéraient sans doute de la sorte que nos militants reviendraient sur les lieux et se feraient prendre au piège. Peine perdue pour eux.

L'action contre M. Donier visait un de ces requins qui pullulent dans les marigots de la spéculation immobilière. S'il s'en tire à bon compte pour cette fois-ci, nous ne saurions trop lui recommander d'aller se mette au vert loin du Pays Basque car nous sommes déterminés à tout mettre en oeuvre pour contrecarrer les affairistes du béton tels que lui. Le même avertissement vaut aussi pour ceux qui, par la loi de l'argent, enlèvent la terre aux paysans de notre pays à des fins de villégiature comme cela fut le cas à Hélette.

A la lumière de ces deux cas, nous redisons encore que le seul moyen de mettre un terme à la spéculation immobilière et au processus de spoliation qui menacent l'existence même de notre peuple, c'est l'élaboration et la mise en oeuvre d'un schéma d'aménagement équilibré et maîtrisé de notre espace. Une telle prérogative ne peut être le fait que d'une institution spécifique ayant parmi ses attributions compétences et moyens en matière d'aménagement du territoire et de développement économique. *Cette faculté à déterminer nos choix en tous domaines, à gérer nous mêmes nos propres affaires, suppose la mise en place d'un cadre institutionnel d'autonomie interne.*

I.K. tient enfin à rappeler que l'amnistie non conditionnelle et la libération de tous les prisonniers politiques est une mesure incontournable dans un processus de règlement politique global, seul à même de créer les conditions d'un réel apaisement.

Presoak etxerat turismakeria aski
Herriak bizi behar du autonomia lehen urratsa,
askatasunaren bidean.

**Iparretarrak.**

## SUR VOTRE AGENDA

- **du 2 au 13 juillet MAULEN** (galerie Uztaro, haute-ville) dans le cadre des rendez-vous mensuels, cycle d'expositions de peintures, exposition des travaux des élèves de l'atelier d'art Uztaro/Uhaitza avec le concours d'Euskal Kultur erakundea.
- **vendredi 5 juillet dès 15 h URRUÑAN** (Hazia) : sensibilisation et échanges sur le patrimoine naturel et la zone montagneuse locale avec projection de vidéo puis diapos, commentée par J. Bost.
- **vendredi 5 juillet, 21 h, BAIONAN** (Patxoki) : apéritif-tapas, vidéo, musique «Oldartzen eta Patxa taldeen artean koordinaketa ospatzeko».
- **vendredi 5 juillet, 22 h, MUSKILDIN** ("au vieux chistera") : conférence-débat «histoire de la pastorale».
- **samedi 6 juillet, 21 h, MAULEN** (batzoki Pitxu, haute-ville) : soirée information-animation en solidarité avec Gaz-pars avec le concours d'Irigoyen anaiak.
- **mercredi 10 juillet, 19 h 30**, sur les stations "Xiberoko botza" et "Irulegiko irratia" dans le cadre de l'émission "Kalaka", interview de Jean-Louis Maitia, président de Seaska par Filgi Claverie.
- **jusqu'au 14 juillet BARDOS-en** : exposition lithographie de J. Messagier, J.M. Laplassotte, A. Delpech, A. Bonifacio, sous l'égide d'Euskal Kultur erakundea.

**- à retenir -**

- **vendredi 12 juillet, 21 h 30, BAIONAN** (musée Bonnat) soirée café-théâtre "Kontrabajua" avec Mikel Martinez de la troupe Maskarada, avec le concours d'Euskal Kultur erakundea.
- **dimanche 14 juillet MAKEAN**, "ikurriñaren eguna" organisé par Eusko Alkartasuna.

## CDDHPB

■ Le bulletin trimestriel n°19, daté juin 1991, est paru. Comme toujours, excellent bilan des trois mois écoulés. Et puis des articles et commentaires sur la situation en Pays Basque Nord, dont l'intervention de Denis Langlois à Madrid à l'ouverture du procès du GAL. Innovation : le rapport moral en euskara.

CDDHPB : MJC Polo-Beyris 64100 Baiona.

notre couverture: La manifestation «Tipi-Tapa» à Bilbao, le 29 juin, démarre sous le regard des 513 prisonniers politiques basques.